

KONTSULTA PUBLIKOA, NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO ADMINISTRAZIOAREN ETA HAREN ERAKUNDE AUTONOMOEN ZERBITZUKO LANGILEEK ZERBITZUA TELELANAREN BIDEZ EMATEA ARAUTZEN DUEN FORU DEKRETUAREN PROIEKTUA PRESTATU AURREKOA	
Tramitea:	FORU DEKRETUA IDATZI AURREKO KONTSULTA
Bitartekoa:	GOBERNU IREKIAREN ATARIAN ARGITARATZEA

Informazioaren eta komunikazioaren teknologien bilakaerak berekin ekarri du lana antolatzeko modu berri bat, beste aurrerapen batzuen artean. Antolaketa horrek ez du behar langilea lantokian fisikoki egotea, norberaren bizitza, familia eta lana bateratzen laguntzen du, eta, aldi berean, eskura ditugun baliabideak eta ingurumena modu iraunkorrago batean kudeatzea errazten du.

Inguruabar horiek kontuan hartuta, 2002ko uztailaren 16an Telelanari buruzko Europako Esparru-akordioa sinatu zen Europar Batasunaren eremuan, telelangileen lan baldintzak Europa mailan ezartzen dituen esparru orokorra prestatzeko xedea duena.

Otsailaren 7ko 6/2019 Foru Legeak hogeita bigarren xedapen gehigarria gehitu zion Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren testu bategina onesten duen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuari. Xedapen horrek ezartzen du ekintza batzuk finkatu behar direla, Nafarroako administrazio publikoen eremuan lanaren, bizitza pertsonalaren eta familiakoaren uztartze eta erantzukidetasunaren aldeko neurri batzuk jartzeko behar direnak, hain zuzen, eta, neurri horien artean, telelana dago sektore batzuetarako, zeinetan bateragarria baita zerbitzuak ematea eta lantokietan fisikoki egon gabe lanaldia betetzea.

Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariak martxoaren 12an emandako 47/2020 Foru Aginduaren bidez, baimena eman zen COVID-19 dela-eta neurri batzuk hartzeko Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen menpeko lantokietan. Neurri horien artean, badago aurrez aurrekoak ez diren lan modalitateak ezartzeko aukera behar bezala justifikatutako kasuetan, ohiz kanpoko neurri horrek COVID-19aren hedapena oztopatzen lagundu dezakeelakoan. Esperientzia hori aurrekari bat da, egun Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko langileen zerbitzu ez-presentziala arautzen laguntzen duena.

Foru dekretu hau prestatzeko helburua hau da:

- Abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren bigarren xedapen gehigarriko agindua betearaztea, zerbitzuak aurrez aurre ez emateko modalitate gisa araututa telelana.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publikoari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legearen 133.1 artikulua xedatzen duenez, lege aurreproiektu bat edo erregelamendu proiektu bat egin aurretik, kontsulta publiko bat sustatzen ahalko da lege aurreproiektuetarako, eta horixe sustatuko da

erregelamendu proiektuetarako, Nafarroako Gobernu Irekiaren Atariaren bidez, non jasoko baita zer iritzi duten etorkizuneko arauaren eraginpean gerta litezkeen subjektuek eta ordezkaritza handieneko erakundeek, honako hauei buruz: ekimenarekin konpondu nahi diren arazoak, foru dekretua onesteko premia eta egokitasuna, arauaren xedeak eta aukeran dauden alternatibak, arauemaileak eta ez arauemaileak.

Bestalde, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legeak 21. artikuluan ezartzen duenez, Nafarroako administrazio publikoek kontsulta publikoak, foru legeen aurreproiektuak eta erregelamendu proiektuak egin aurretik planteatzen direnak, argitaratu behar dituzte.

Aurreikuspen horiek betez, herritarrek, erakundeek eta elkarteek, egoki iritziz gero, planteatuko arau proposamenaren gainean dituzten ekarpenak igor ditzakete helbide elektroniko honetara: **funcionpublica@navarra.es**. Ekarpenak aurkezteko epea 15 egun baliodunekoa da, argitaratu eta biharamunetik aitzina.